

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2024ko martxoaren 7an egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

DIRULAGUNTZA-HITZARMENA BERRIAK ELKARTEAREKIN

Herriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen sektorea sustatzea eta, bide horretatik, elkarteak babestea xede duen markoa adostu dute bi aldeek: Hernaniko Udalak eta Berriak elkarteak. Eta, marko horren baitan 4 urterako hitzarmena sinatu zuten 2023 urtean, 2023ko apirilaren 20an egindako Tokiko Gobernu Batzarrak hartuko erabakiari jarraiki.

Testu inguru horretan, Berriak, Hernaniko Merkataria eta Ostalarien Elkartearen asmoa da Hernaniko udalerria merkataritza, zerbitzu eta aisialdi gune gisa dinamizatzea, kontsumitzaileentzako erakargarri eginez eta zerbitzu pertsonalizatua emanez.

Helburu horiek erdiesteko 2024 urteko jarduera-plana aurkeztu du Berriak elkarteak eta udalerrian antolatzen diren ekintzen partaide egin nahi ditu hernaniar guztiak.

Era berean, 2023 urteko jarduera-planari lotutako justifikazioa egiteko memoria eta dokumentazioa aurketu du Berriak elkarteak.

Berriak elkarteak irabazi asmorik gabekoa da eta Hernanin dagoen merkataritza eta ostalaritza elkarte bakarra da. Merkatarien, ostalarien eta herriko zerbitzuen sektorearen ordezkartzen aritzen da hauen interesak defendatuz. Horretarako lan-mahai eta foroetan parte hartzen du, banakako aholkularitza eta kudeaketa profesionala eskaintzen du, doako formakuntza programak sortu edo bideratzen ditu eta animazio eta dinamizazio ekintzak burutzen ditu, besteak beste.

Ikusita, Udal Teknikariaren txostenak.

Ikusita, Kontu-hartzailearen txostena.

Kontuan hartu da Tokiko Garapen Batzordeak 2024ko otsailaren 28an aho batez emandako irizpena

Horiek horrela **Tokiko Gobernu Batzarrak aho batez onartzen du**

- 1- 2023 urteko justifikazioa ontzat ematea eta bigarren ordaiaketa egitea (10.800,00€).
- 2- Herriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen sektorea sustatzeko Lankidetzaren Dirulaguntza Hitzarmena berrestea, Berriak elkartearen alde eta dirulaguntzaren % 60 (16.200,00€) aurrerapen gisa ordaintzea.

Epea: gehienez 4 urte: 2023, 2024, 2025 eta 2026.

Kontusaila: 1 02.481.01.431.00 2024 (4552) BERRIAK ELKARTEA-HITZARMENA

Kreditua: 27.000,00 €

Horren berri ematen dizugu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakezu Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeko 114.c) artikuluaekin bat etorritik.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hori guztia aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dizkiozun egintza edo errekurtsoak aurkezteari ezertan galderazi gabe.

Hernanin 2024ko martxoaren 7a

Patxi Jagoba Lapatza-Gortazar Bengoa

Hernaniko udal-Idazkaria

Gudarien plaza 1 – Tel. 943 337 000 – Fax 943 55 26 96 – e-mail: hzh@hernani.eus



EKS | CSV: **ESKUb9953e1a-fa28-48aa-8f14-64e4c4482762**

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>